**UDALBATZAK 2017KO APIRILAREN 27AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko apirilaren 27ko arratsaldeko 18:05 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 27 DE ABRIL DE 2017**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:05 horas del día 27 de abril del año dos mil diecisiete, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

***Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco***

- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

***Errenteria IrabaziZ***

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago Mª José SANCHEZ PLAZA udal kontu-hartzailea.

***EAJ/PNV***

- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Mª José SANCHEZ PLAZA.

**1. Udalbatzak 2016ko urriaren 25ean, 2016ko azaroaren 29an eta 2017ko martxoaren 28an eginiko ohiko osoko bilkurei dagozkien aktak irakurri eta, egoki bada, onartzea.**

Idazkariak irakurri ditu 2016ko urriaren 25ean, 2016ko azaroaren 29an eta 2017ko martxoaren 28an eginiko ohiko osoko bilkurei dagozkien aktak.

Oharrik gabe onartu dira.

**1. Lectura y aprobación en su caso de las actas correspondientes a las sesiones ordinarias de 25 de octubre y 29 de noviembre de 2016 y 28 de marzo de 2017.**

Leída por la Secretaria las actas correspondientes a las sesiones ordinarias de 25 de octubre y 29 de noviembre de 2016 y 28 de marzo de 2017.

Se aprueban sin observación alguna.

**2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 837 zk.tik 1135 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2. Cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, nºs. 837 al 1135 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

El Pleno queda enterado.

**3. Berri ematea: Kontuhartzailetzako txostenak.**

**3. Dar cuenta: Informes Intervención.**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Ondokoa jakinarazi da:

- Finantza eta aurrekontuen arloko informazioa 2017ko 1. hiruhilabetea

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Se da cuenta del siguiente:

- Informe sobre información financiera y presupuestaria 1º trimestre de 2017

El Pleno queda enterado.

**4. Berri ematea: Udalaren eta erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa.**

Udalaren eta erakunde autonomoen 2016ko aurrekontuen likidazioaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4. Dar cuenta de la liquidación del Presupuesto Municipal y del de los Organismos Autónomos.**

Se da cuenta de la liquidación del Presupuesto Municipal y del de los Organismos Autónomos 2016.

El Pleno queda enterado.

**5. Hasierako onespena ematea Errenteriako Etxeko eta Merkataritzako Hondakinen Udal Ordenantzari.**

**Aurrekariak.-**

Udal Zerbitzu Teknikoak egin dute ***Errenteriako etxeko eta merkataritzako hondakinen Udal-Ordenantza.*** Ordenantza honen xedea da arautzea, Errenteriako udalerriari dagokionez, etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa eta material birziklagarrien berreskuratzea.

2017Ko martxoaren 30ean, Iñaki Azkaratek, ngurumeneko goi mailako udal teknikariak, ordenantzaren hasierako onarpenaren aldeko txostena egin du.

**5. Aprobación inicial de la Ordenanza Municipal de Residuos Domésticos y Comerciales de Errenteria.**

**Antecedentes.-**

Desde los Servicios Técnicos Municipales, se ha procedido a elaborar la ***Ordenanza municipal de residuos domésticos y comerciales de Errenteria***, al objeto de regular, dentro del término municipal de Errenteria, la gestión de residuos domésticos y comerciales y de la recuperación de materiales reciclables.

Con fecha 30 de marzo de 2017, el técnico superior de medio ambiente, Iñaki Azkarate, emite informe favorable a la aprobación inicial de la ordenanza.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Era berean, 2017ko martxoaren 30ean, Vicente Castiellak, udal aholkulari juridikoak, ordenantzaren hasierako onarpenaren aldeko txosten egin du.

Asimismo, con fecha 30 de marzo de 2017, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella, emite informe favorable a la aprobación inicial de la referida ordenanza.

2017ko apirilaren 5ean, gaia ingurumeneko informazio batzordean jorratu zen, eta Ordenantza aldatzeko bi proposamen egin ziren:

Con fecha 5 de abril de 2017, se trató el tema en la comisión informativa de medio ambiente, en la que se efectuó una propuesta de modificación de la Ordenanza:

-EAJ/PNVko ordezkariak adierazi du 6. Tituluko, 1 Kapituluan, 45.1 Artikuluak esaten duenean: "*Berariazko funtzio horiek esleitutako dituen langileari eta udaltzainei egokituko zaie Udalaren izenean ikuskatzea, zaintzea eta kontrolatzea betetzen dela ordenantza honetan ezarritakoa;...*" zehaztu beharko litzatekeela zer langile mota izango den.

-Por parte de EAJ/PNV se plantea que en el Título 6, capítulo 1, Artículo 45.1, donde se dice: "*El ejercicio de las funciones de inspección municipal, vigilancia y control del cumplimiento de lo dispuesto en la presente Ordenanza corresponderá al personal que tenga atribuidas dichas funciones...*" se concrete el tipo de personal que se dedicará a estas funciones.

Gaia eztabaidatu ondoren, testua aldatzea erabaki da eta honela idatzita geldituko litzateke: "*Berariazko funtzio horiek esleituak dituen* ***udal*** *langileari eta udaltzainei egokituko zaie Udalaren izenean ikuskatzea, zaintzea eta kontrolatzea betetzen dela ordenantza honetan ezarritakoa;...*"

Tras debatirse el asunto, se propone modificar el texto que quedaría redactado de la siguiente manera: "*El ejercicio de las funciones de inspección municipal, vigilancia y control del cumplimiento de lo dispuesto en la presente Ordenanza corresponderá al personal* ***municipal*** *que tenga atribuidas dichas funciones...*"

## Zuzenbide oinarriak.-

## Legislación aplicable.-

Aplikagarria den legedia ondorengoetan dago jasota: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1.a), 7, 22.2.d), 25.1 y 25.2.b), 47.1, 49, 70.2 eta 84 artikuluak; Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa Foru Arauaren 1.2 art., Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legea 14 art.,

La legislación aplicable viene establecida en los artículos 4.1.a), 7, 22.2.d), 25.1 y 25.2.b), 47.1, 49, 70.2 y 84 de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, artículo 1.2 de la Norma Foral sobre la singularidad foral en la aplicación de las medidas de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, artículos 14 y siguientes de la Ley de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Toki Araubidearen gaietan indarrean dauden Xedapenen Testu Bateginaren 55 eta 56 art.; AJAren 172 art.; Toki Korporazioetako Zerbitzuen araudiaren 5. art. eta ondorengoak;

Instituciones Locales de Euskadi, artículos 55 y 56 del Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local, artículo 172 del R.O.F. y artículo 5 y siguientes del Reglamento de Servicios de la Corporaciones Locales.

Aipatutakoa kontuan izanda.

A la vista de lo expuesto.

Ingurumen batzordeak aldeko txostena egin zuen 2017ko apirilaren 5ean.

Visto el informe favorable de la Comisión Informativa de Medio Ambiente de fecha 05 de abril de 2017.

Ondorengo mintzaldiak izan dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Peña andrea (EAJ/PNV) euskaraz aritu da eta adierazi du ordenantzaren alde bozkatuko dutela. Badira hainbat gauza gustukoak ez direnak, baina adierazi beharra dauka bere taldeak egindako ia proposamen guztiak kontuan hartuak izan direla eta horregatik alde bozkatuko dutela. Nabarmendu behar da aurreko bere botoa nolabait baldintzaturik zegoela, baina orain konprobatu egin dute, ondo jasota dagoela eta berriro adierazi du alde bozkatuko dutela. Bere iritziz, garrantzizkoa da hori bezalako ordenantza Udalbatzak aho batez onartzea eta hori dela-eta pozik dago.

* Interviene en euskera la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que votarán a favor de la ordenanza. Hay ciertas cosas que no son de su gusto, pero tienen que decir que casi todas las propuestas que hizo su Grupo han sido tenidas en cuenta y por ello votarán a favor. Hay que decir que su voto anterior estaba de alguna manera condicionado, ahora lo han comprobado, está bien recogido y repite que votarán a favor. Cree que es importante que una ordenanza como esta sea aprobada en el Pleno por unanimidad y por ese lado están contentos.

* Legorburu jauna (Errenteria IrabaziZ) mintzatu da eta adierazi du Errenteria IrabaziZ taldearentzat gaurkoa egun garrantzitsua dela. Izan ere, udalbatza honetan hondakinen ordenantza berri baten hasierako onarpena aurkeztu dugu. Urtebetea igaro da ordenantzaren 1. zirriborroa aurkeztu zenetik eta tarte horretan alderdi politikoek eta Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren hondakinen batzordeak ekarpenak aurkeztu zituen zirriborroa hobetze aldera. Denbora joan ahala alderdi politikoen arteko

* Interviene el Sr. Legorburu (Errenteria IrabaziZ) manifestando que para Errenteria IrabaziZ hoy es un día importante dado que traemos a este pleno municipal la aprobación inicial de la nueva ordenza de residuos en nuestro municipio. Ha pasado un año desde que se presentó el primer borrador de ordenanza y que los partidos políticos y la comisión de residuos del Consejo Asesor de Medio Ambiente presentaron aportaciones con el espíritu de mejorarla. Con el paso del tiempo las relaciones



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

harremanak izugarri hobetu dira. Horrek berekin ekarri du kontsentsu handienaz edo aho batez aurrera atera ahal izatea gaur aurkeztu dugun ordenantza hasiera batean onartua izan dadin. Dena den, beti argi utzi behar da jendaurrean jartzeko epean alegazioak edo ekarpenak egin litezkeela ordenantza hobetzearren. Oraingoan herritarrei dagokie kontzientziatzea guztion artean ingurumena errespeta dezagun eta era horretan inguru osasungarriago bat uzteko datozen belaunaldiei. Hiri hondakin solidoen bilketari buruzko ordenantza 1997koa da, bi aldaketa izan dituelarik 2005 eta 2007 urteetan. Begi bistakoa da, iragandako denbora dela-eta, beharrezkotzat jotzen zela beste ordenantza bat eratzea. Hala ulertu dugu eta lan horri ekin diogu bereziki Ingurumeneko eta Hiri Mantenimenduko departamentuetan. 2007ko ordenantzak 13 artikulu ditu eta 4 orritan sartzen da. Ordenantza berriak 59. artikulu ditu. Argi dago 20 urteetan gauza asko gertatu dira eta egoera berrien aurrean aurkitu garela, hain zuzen ere ordenantza berrian jaso behar zirenak. Eta hori guztia Udalbatza osoak helburu konpartitu batera, zalantzarik gabe, bideraturik: birziklapenaren % 60ko gutxienekoa lortzea ahalik eta eperik laburrenean. Helburu hori lortu ahal eta behar dugu eta gure asmoa izan daiteke hortik gora jotzea. Ordenantza berri osoa jorratzeko asmorik gabe, bertan jasotzen diren hainbat alderdi nabarmendu nahi ditut, esaterako, gaikako bilketaren antolaketa, ekoizle handiei eta landa eremuko jatetxeei bilketa pertsonalizatua. Komertzioan eta ostalaritzan biltzeko arauak, bolumen handiko eta/edo hondakin arriskutsuen bilketa sendotu eta hobetzea, konpostaje komunitariorako programak egitea, garbigune txikiak

entre los partidos políticos han mejorado mucho. Eso ha hecho que la ordenanza que hoy traemos para su aprobación inicial pueda salir adelante con el máximo consenso o por unanimidad, que es lo que nos gustaría. Siempre dejando claro que en el periodo de exposición pública se pueden hacer alegaciones o aportaciones con el espíritu de mejorarla. Ahora toca que la ciudadanía se conciencie para así entre todos respetar el medio ambiente y con ello dejar un entorno más saludable a las futuras generaciones. La ordenanza sobre recogida de resíduos sólidos urbanos data del año 1997 con dos modificaciones en los años 2005 y 2007. Es evidente que dado el tiempo transcurrido, la elaboración de una nueva ordenanza era una tarea necesaria y así lo hemos entendido y a ello nos hemos dedicado especialmente en los departamentos de Medio Ambiente y Mantenimiento Urbano. La ordenanza de 2007 tiene 13 artículos y cabe en 4 páginas. La nueva ordenanza tendrá 59 artículos. Evidentemente en 20 años han pasado muchas cosas y se han dado nuevas situaciones que había que recoger en la nueva ordenanza. Y todo ello orientado a un objetivo sin duda compartido por el conjunto de la Corporación municipal: Alcanzar un mínimo del 60% en el reciclaje de residuos en el plazo más breve posible. Podemos y debemos alcanzarlo y aspirar a superarlo. Sin ánimo de abordar el conjunto de la nueva ordenanza, sí quisiera destacar algunos de los aspectos que en ella se recogen como puede ser: la organización de la recogida selectiva; la recogida individualizada a los grandes productores y restaurantes de la zona rural; Las normas de recogida en comercio y hostelería; el reforzamiento y la mejora de la recogida de los residuos voluminosos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

instalatzea auzoetako hondakin arriskutsuak biltzeko Udal talde honek ez du nahi izan zenbaki-logika soil bat aplikatu ordenantza berria eratu eta onartzeko garaian. Horregatik kontsentsuaren eta elkarren arteko topaketaren alde egin dugu. Eta ez bakarrik onartua izan dadin, baita eratzeko ere. Izan ere, pentsatzen genuen ordenantzak izan behar zuela lan fase zabal baten emaitza informazio eta kontsulta denboran zehar, eta ez bakarrik udal mailan soilik, baita herritarren mailan ere. Eta, hemen espresuki aipatu nahi nuke Ingurumeneko Aholku Kontseiluaren hondakinen taldea, horien lana aberastu baitu, zalantzarik gabe, gaur onartua izan dadin aurkeztuko dugun testua. Errenteriak hondakinei buruzko ordenantza bat behar zuen, gure herriko herritarrentzat erabilgarria izango zena. Gizaker-rek iaz egindako azterlana herritarren artean lankidetzarako gogoa eta ingurumena zaintzeko aldez aurreko jarrera detektatu zituen, enpresa horrek zenbait lekutan egindako azterlanetan detektatutakoa baino askoz handiagoa. Herritarren ezagutza hondakinen gaineko gaietan alde batera utzi gabe, Udalari iradoki zitzaigun herritarren ekintza fasera pasatzea. Ordenantza berria garrantzitsua da gure herrian dagoen herritarren jarrera hori sendotzeko garaian. Ordenantzak herritarren eskura jartzen ditu baliabide eta bitarteko berriak. Horregatik garrantzitsua da gaur onartzea, guztiok irabaziko baitugu. Eta Errenteriak ere irabaziko du.

y/o peligrosos; una normativa para la realización de los programas de compostaje comunitario; instalación de garbigunes txikis para la recogida de residuos peligrosos en los barrios. Este equipo de gobierno en todo momento ha huído de aplicar una mera lógica numérica a la hora de elaborar y aprobar la nueva ordenanza. Por ello se ha buscado el consenso y el encuentro de todos. Y no sólo para su aprobación sino también para su elaboración. Por eso entendíamos que la ordenanza debía ser el fruto de una amplia fase de trabajo en el tiempo, de información y consultas ya no solo a nivel municipal, sino también a nivel de la ciudadanía y aquí quisiera mencionar expresamente al grupo de residuos del Consejo Asesor de Medio Ambiente, cuyo trabajo y aportaciones han enriquecido sin duda el texto que hoy traemos a aprobación. Errenteria necesitaba una ordenanza de residuos que resultara útil a la ciudadanía de nuestro pueblo. El estudio realizado por Gizaker a finales del pasado año detectaba un ánimo de colaboración ciudadana y de predisposición al cuidado medioambiental entre la población de Errenteria muy superior a la detectada en otros lugares analizados por dicha empresa. Sin renunciar a seguir mejorando el conocimiento de la ciudadanía sobre la cuestión de los residuos, se nos sugería al Ayuntamiento pasar a la fase de la acción ciudadana. La nueva ordenanza viene a ser un elemento importante a la hora de potenciar esa actitud ciudadana ya existente en nuestro pueblo. La ordenanza pone nuevos medios y recursos al alcance de la ciudadanía. Por eso es importante que hoy la aprobemos, con ella ganamos todas y todos, y ganará Errenteria.

* Rodriguez jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas

* Interviene el Sr. Rodriguez (Euskal Sozialistak-



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Vascos) adierazi du bere taldeak alde bozkatuko duela, eratzea lortu den Ordenantzan Talde Sozialistak aurkeztutako proposamenak onartu baitira. Horien artean nabarmentzen da borondatezko eta hobaria emango duen bilketa zerbitzua, gure babeserako ezinbesteko ezaugarriak zirenak, izan ere, eredu horren alde egin baitugu beti. Talde guztiek egindako lana eskertu du Ordenantza hori aurrera atera ahal izateko aho batez.

Socialistas Vascos) manifestando que, su grupo va a votar a favor ya que se ha conseguido realizar una Ordenanza donde se han aceptado las propuestas presentadas por el Grupo Socialista, destacando un servicio de recogida de carácter voluntario y bonificado, aspectos esenciales para nuestro apoyo ya que es el modelo por el que siempre hemos apostado. Agradece el trabajo realizado por todos los Grupos para sacar esta Ordenanza adelante por unanimidad.

* Lemos jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du ordenantza bat proposamen eta betebeharren artikuluak direla aplikatu eta betearazi daitezen. Eta gaur onartua izateko aurkeztutako ordenantza, batetik, jaio da eta bere asmoa da hainbat joerari erantzutea, eta, bestetik, joan den mendetik datorren ordenantza ordezkatzea. Asmoa da hondakinen gaia beste era batean ulertaraztea, bere garrantzia, eta, era berean, nahi du, herritarren atxikimendutik ingurumen osasungarriagoa eta hobea lortzea guztiontzat. Nabarmendu nahi du, bere kideek komentatutakoa, sortu dela kontsentsu politikotik eta sozialetik. Horren haritik, badu eta onartu eta balioan jarri nahi du, bai Hondakinen Batzordeak landutako lana, bai Alderdiek egindako ahalegina, kasu honetan, oposizioak.. Hain zuzen ere, ezaugarri hori nabarmendu nahi du, bere garaian hala ikusi zuten Ingurumeneko Batzordean, bai Aholku Kontseiluan eta Udalbatza honetan ere hala dela ikusten ari dira, eta horregatik beren burua zoriondu beharra daukate. Ordenantza honen bidez helburu beraren atzetik gabiltza: ahalik eta birziklapen tasa maila handienak lortzeko. Eta ez bakarrik Europako zuzentarau batek hala diolako, kasu honetan bezala, baizik eta Errenteria / Orereta eta bertako herritarrak hala

* Interviene el Sr. Lemos (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que una ordenanza es un articulado de propuestas y deberes para su aplicación y cumplimiento, y la que hoy traemos para su aprobación es una ordenanza que nace y pretende responder a una serie de patrones y por otro lado, sustituir a una ordenanza que viene del siglo pasado. Pretende contribuir a entender de otra forma el tema de los residuos, su importancia y quiere, desde la adhesión de la ciudadanía que contribuya a conseguir un entorno mejor y más saludable para todas y para todos: Hay una cosa que quiere subrayar, que ya ha sido comentada por sus compañeros y compañeras, y es que nace del consenso político y social. En ese sentido tiene, y quiere reconocer y poner en valor, tanto la labor desarrollada por la Comisión de Residuos, como el esfuerzo de los Partidos, en este caso de la oposición. Precisamente es este aspecto el que quiere destacar, lo vieron en su momento en la Comisión de Medio Ambiente, lo vieron en el Consejo Asesor y lo están viendo hoy en este Pleno, y es algo de lo que se tienen que felicitar. Mediante esta ordenanza buscamos un mismo objetivo; conseguir las mayores tasas de reciclado. Y no sólo porque lo



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

erakusten ari direlako (adierazi behar da biohondakinetan 100 Tm-ko maila gainditu dela) eta oraindik mesfidati dauden horiek ulertu dutelako merezi duela. Eta horretarako kanpaina bat abiaraziko dugu, inor kanpoan gera ez dadin. Oinarrizko bi baldintza badira, gure ustez, ordenantza honen arima edo funtsa osatzen dutenak: 1.a Birziklatu egin behar da. 2.a Kutsatzea ez da eskubidea. Ez naiz erratuko konpartitutako helburua dela diodanean edo behintzat hori da Ingurumeneko Batzordetik irten nintzenean atera nuen ondorioa, non bertan gaur onartu behar dugun ordenantzak aho batez argia ikusi zuen, alde batera utzi gabe hartutako konpromiso bat bera ere. Baina, zergarik diogu birziklatu egin behar dela? a) Birziklatzea edozein pertsonak parte har dezakeen . eguneroko jarduereta xehe eta atseginetako bat delako b) Birziklatzea erantzukizun zibileko eta ingurumena zaintzeko jarduna delako. Gure eskura dagoen zerbait da. c) Energia aurrezten dugulako eta klima-aldaketaren aurka borroka egiten dugulako. d) Lehengai gutxiago erabili eta natura-baliabideak aurrezten ditugulako. e) ingurumena zaintzen dugu, gutxiago kutsatzen dugu. f) Birziklatzea kultura eta erantzukizun sozialeko isla delako. Horregatik, “geure buruari galdetzen diogunean, zer egin dezaket nik?”. Erantzuna da birziklatzea, eta zure esku dago. Eta gai honetan erantzunkidetasunaz aritu behar dugu, birziklatu egin behar da. Aipatu ditugun bi baldintza horietaz ari garenean, errespetuaz eta gizalegeaz ari gara. Errespetua ingurumenarekiko eta geure buruarekiko. Konbentziturik gaude konpartitutako borondate horrek Errenteria/ Oreretako herritarrak eramango gaituela ondorioztatzera seriotan hartuko dugula, maila

diga una directiva europea, como es el caso, sino porque Errenteria / Orereta y su ciudadanía ya lo está demostrando (hay que indicar que se ha superado el umbral de las 100Tm de bioresiduo) y esas personas que aún están recelosas van a entender que merece la pena. Para ello pondremos en marcha una campaña para que nadie se quede fuera. Hay dos premisas fundamentales que en nuestra opinión constituyen el alma, la esencia de esta ordenanza: 1. Hay que reciclar. 2. Contaminar no es un derecho. Creo no equivocarme cuando digo que este es un objetivo compartido o desde luego es la conclusión con la que salí de la comisión de Medio Ambiente donde por unanimidad se le dio luz verde a la ordenanza que hoy vamos a aprobar sin obviar ninguno de los compromisos adquiridos. Pero ¿porque decimos que hay que reciclar?: a) Porque reciclar es una de las actividades cotidianas más sencillas y gratificantes en la que puede participar cualquier persona. b) Porque reciclar es un ejercicio de responsabilidad social y cuidado del medio ambiente. Es algo que está en nuestra mano. c) Porque ahorramos energía y luchamos contra el cambio climático. d) Porque usamos menos materias primas y ahorramos recursos naturales. e) Preservamos el medio ambiente, se contamina menos. f) Porque reciclar es reflejo de cultura y responsabilidad social. Por eso, “cuando nos preguntamos ¿qué puedo hacer yo?”. La respuesta es reciclar!, está en tu mano. Y aquí hay que hablar de co-responsabilidad, hay que reciclar. Cuando hablamos de esas dos premisas que hemos comentado, estamos hablando de respeto y de civismo. Respeto para con el medio ambiente y para con nosotros y nosotras mismas. Estamos

emango dugula eta Europak agindutako betebeharra txiki geratuko dela. Eta, ez Europak hala agintzen duelako, baizik eta konbentziturik gaudelako erabakirik onena dela. Ingurumenaz ari gara. Hau da, beste era batean esanda, gure oraina eta geroaz. Bada indiarren esaldi bat azaldu nahiko lukeena: “Lurra ez da arbasoengandik oinordetzan hartutako zerbait, gure seme-alabei / ondorengoei maileguan hartutako zerbait da” Amaieran adierazi du guztiak zoriontzea besterik ez zaiola geratzen.

convencidos de que esta voluntad compartida nos lleva a concluir que la ciudadanía de Errenteria / Orereta lo vamos a tomar en serio, estaremos a la altura y dejaremos pequeña la obligación que nos marca Europa, y no porque así nos lo exija, sino porque estamos convencidos de que es lo mejor. Hablamos del medio ambiente. Dicho de otro modo, de nuestro presente y de nuestro futuro. Hay una frase de los Indios que le gustaría comentar. “La tierra no es algo que heredamos de nuestros mayores, es algo que tomamos prestado a nuestros hijos / descendientes.” Finaliza señalando que no le queda más que felicitar a todos.

* Mendoza alkate jaunak (Orereta/Errenteriako EHBildu) adierazi du (euskaraz) hondakinen gaia denbora luzeegiz sinesgaitz bihurtu dela Gipuzkoako lurraldean. Sinesgaitza eta ulergaitza da konfrontazio politikoa zein neurritara heldu den hau bezalako gaian batean eta, horregatik ordenantza aho batez onartzea oso garrantzitsua da berarentzat eta, bere ustez, guztiak ari ira urrats hori aintzat hartzen.. Ordenantzak berarekin dakarrena garrantzitsutzat hartu da, izan ere, guztiek helburu izan zuten % 60ko birziklapenera heltzea eta birziklapenari buruz eman diren datu guztien arabera, etab. Baina garrantzitsua da, esango nuke bestea bezain garrantzitsua, hau da, talde guztiek jarrera komuna izatea gizartearen aurrean eta behingoz aukera izatea hori bezalako gai batean konfrontazio politikoa saihesteko. Espero du gaur egiten ari direna dela-eta, eta horren haritik eskertu nahi du Talde Politiko guztiek egindako jarduna eta ahalegina, inflexio puntua izango dela eta hemendik aurrera beste baldintza batzuen arabera eta beste logika batekin jardungo dela. Birziklatu egin behar dela konpartitzen dute, hala nola

* Interviene en euskera el Alcalde Sr. Mendoza (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que durante demasiado tiempo el tema de los residuos se ha convertido en algo inverosimil en la provincia de Gipuzkoa. Es dificil de creer y de entender hasta qué punto de confrontación política se ha llegado en un asunto como este, por lo que aprobar hoy por unanimidad la ordenanza que se propone es muy importante para él y cree que todos están valorando ese paso. Es importante por lo que supone la ordenanza, todos se marcaron el objetivo de llegar a reciclar el 60% antes de terminar la legislatura y por todos los datos que se han dado en cuanto al reciclaje, etc. Pero es importante, diría que casi tan importante como lo otro, el que todos los Grupos trasladen una posición común a la sociedad y por una vez tener la oportunidad de evitar la confrontación politica en un asunto como ese. Espera que lo que hoy hacen, y en ese sentido quiere agradecer el ejercicio y el esfuerzo realizado por todos los Grupos Políticos, suponga un punto de inflexión y en adelante se funcione en otros términos



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

birziklapen tasa handiagoak lortu behar direla. Ea lortzen dena datozen hilabeteetan eta urteetan mantentzen den, eta, hortaz, eskerrak guztiei.

y con otra lógica. Comparten que hay que reciclar, comparten que cada vez hay que llegar a mayores tasas. A ver si lo que hoy consiguen se mantiene durante los siguientes meses y años, por ello, muchas gracias a todos.

Mintzaldiak amaiturik,

Finalizadas las intervenciones.

Ingurumen batzordeko buruak proposamena egin du.

A propuesta del Presidente de la Comisión Informativa de Medio Ambiente.

Udalbatzak, aho batez, aldeko 21 botorekin (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por unanimidad, con 21 votos a favor (Orereta/Errenteria EHBildu, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos, Errenteriako IrabaziZ, EAJ/PNV)

E R A B A K I A

1º.- **Hasierako onespena ematea** *ERRENTERIAKO ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINEN UDAL-ORDENANTZA-ri*, eranskin gisa espedientean jasota dagoena.

2º.- Jendeak erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko espedientea **jendaurrean jartzea** 30 egunez, horretarako iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, lurraldean gehien saltzen den egunkari batean eta Udaleko iragarki-oholean eta web orrian (http://www.errenteria.net/eu/html/index.shtml) argitara emango direlarik. Norbaitek egingo balitu, Udalbatzak erabakiko lituzke, eta inork ez balu egingo, berriz, aldaketa behin-betiko onartutzat joko litzateke.

A C U E R D A

1º.- A**probar inicialmente** la *ORDENANZA MUNICIPAL DE RESIDUOS DOMÉSTICOS Y COMERCIALES DE ERRENTERIA,* que se adjunta como anexo al expediente.

2º.- **Exponerla a información pública** por el plazo de 30 días, mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en uno de los periódicos de mayor circulación del territorio, así como en el Tablón de Anuncios Municipal y en la página web del Ayuntamiento (http://www.errenteria.net/es/html/index.shtml), a fin de que se puedan presentar reclamaciones y sugerencias que, de producirse, deberán ser resueltas por la Corporación. De no producirse, la Modificación se considerará definitivamente aprobada.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**_6._ Proposamena: informazio-batzorde iraunkorren eraketa eta osaketa berria, Udalaren hiru arlotako (Antolamendua, Lurraldea eta Herritarrak) antolamendu eta plangintza berriaren araberakoa.**

2015-2019 legegintzaldiko udalbatza eratu ondoren, osoko bilkuraren 2015eko ekainaren 18ko erabaki bidez onartu zen alkateak batzorde informatibo eta iraunkorren sorreraren eta eraketaren inguruan egindako proposamena.

Osoko bilkuraren erabaki horren bidez sortu ziren batzorde iraunkor hauek:

1) Lehendakaritza batzordea

2) Ogasuna eta Garapen ekonomikoa batzordea. Honek bere gain hartuko zituen 7/1985 Legearen (apirilaren 2koa, Tokiko Araubide Oinarriak arautzen dituena) 116. artikuluko eskumenak Kontuen Batzorde Bereziari esleitzen dizkionarekin, beti ere eginkizun horretarako eratuta.

3) Kultura batzordea

4) Hezkuntza eta Gazteria batzordea

5) Hizkuntza batzordea, osoko bilkuraren 2015eko azaroaren 24ko erabaki bidez Udal Hizkuntza Politika Batzordea izena hartu zuen

6) Hirigintza, Zerbitzuak eta Hiri Mantenua batzordea

**_6._ Propuesta: creación y composición de nuevas Comisiones informativas permanentes en concordancia con la nueva estructura organizativa y de planificación municipal en torno a los tres ámbitos creados: Organización, Territorio y Ciudadanía.**

Tras la constitución de la Corporación 2015-2019 mediante acuerdo plenario de fecha 18 de junio de 2015 se aprobó la proposición de Alcaldía sobre creación y composición de Comisiones informativas permanentes.

Mediante dicho acuerdo plenario se crearon las siguientes comisiones informativas de carácter permanente:

1) Comisión Informativa de Presidencia

2) Comisión Informativa de Hacienda y Desarrollo Económico. La misma asumiría las competencias que el artículo 116 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local atribuye a la Comisión Especial de Cuentas, constituyéndose a estos efectos para las citadas funciones en tal condición.

3) Comisión Informativa de Cultura

4) Comisión Informativa de Educación y Juventud

5) Comisión Informativa del Idioma, que por acuerdo plenario de fecha 24 de noviembre de 2015 pasó a denominarse Comisión Informativa de Política Lingüística Municipal.

6) Comisión Informativa de Urbanismo, Servicios y



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Mantenimiento Urbano

7) Ingurumena batzordea

7) Comisión Informativa de Medio Ambiente

8) Gizarte Zerbitzuak eta Kultur Aniztasuna batzordea

8) Comisión Informativa de Servicios Sociales y Diversidad Cultural

9) Berdintasunerako batzordea

9) Comisión Informativa de Igualdad

10) Trafikoa, Garraioa, Hiritarren Babesa eta Babes Zibila batzordea

10) Comisión Informativa de Tráfico, Transportes, Protección Ciudadana y Protección Civil

Udal Kirol Patronatua tokiko erakunde autonomoa desegin eta kirolen azpisaila Udalaren egituran txertatu ondoren, osoko bilkuraren 2015eko urriaren 27ko erabaki bidez sortu zen Kirolak batzordea, hau ere iraunkorra.

Tras la disolución del Organismo Autónomo Local Patronato Municipal de Deportes y la integración de la subárea de deportes dentro de la estructura municipal, mediante acuerdo plenario de fecha 27 de octubre de 2015 se creó la Comisión Informativa de Deportes, también de carácter permanente.

Azkenik, osoko bilkuraren 2016ko uztailaren 19ko erabaki bidez sortu zen Errenteria 2025 Plan Estrategikoaren jarraipenerako Batzorde berezi eta ez iraunkorra.

Finalmente, mediante acuerdo plenario de fecha 19 de julio de 2016 se creó la Comisión Informativa especial y de carácter no permanente para el seguimiento del Plan Estratégico Errenteria 2025.

Gure erakundearen egungo antolamenduaren eta funtzionamenduaren inguruan hausnartu dugu eta ateratako ondorioa izan da kudeatzeko modua aldatu behar dugula eta Udalaren erakunde-antolaketa eraberritu behar dela XXI. mendeko administrazio eredura egokitzeko eta printzipio hauei erantzun ahal izateko: modernizazioa; prozeduren sinplifikazioa; erraztasuna eta eraginkortasuna; zeharkakotasuna; denboraren eta baliabideen arrazionalizazioa; zerbitzu publikoak kalitate-estandarren baitan ematea; gardentasuna; herritarren partaidetza eta herritarrek duten herriko politikaren irudia hobetzea.

Considerando que dentro del proceso de reflexión llevado a cabo sobre la organización y funcionamiento actual de nuestra institución, hemos llegado a la conclusión de que resulta necesaria una transformación del modo de gestión municipal y de la organización institucional del Ayuntamiento para adaptarla a una administración propia del siglo XXI que responda a principios de modernización; simplificación de los procedimientos; eficacia y eficiencia; transversalidad; racionalización del tiempo y los recursos; conseguir estándares de calidad en la prestación de los servicios públicos; transparencia; participación ciudadana y mejora de la imagen

política local ante la ciudadanía.

Aurrekoari lotuta eta udal-administrazioak dituen oinarrizko hiru elementu integratzaileak aintzat hartuta ─Antolaketa, Lurraldea (espazio fisikoa) eta Herritarrak (pertsonak)─, 2016ko abenduaren 23ko 1260/2016 zenbakiko alkatetza-dekretu bitartez erakunde mailan hiru arlo handi eratu dira: Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak, Udaleko sail eta azpisailak koordinaziorako eta plangintzarako hiru arlo handitan biltzeko. Dekretu hori argitaratu zen 2017ko urtarrilaren 12ko GAOn eta dekretuaren berri eman zen 2017ko urtarrilaren 31ko osoko bilkuran.

En relación con lo anterior y considerando a la administración municipal desde el punto de vista de sus tres elementos integradores básicos: Organización, Territorio (espacio físico) y Ciudadanía (elemento humano), por medio del decreto de alcaldía nº 1260/2016 de 23 de diciembre de 2016 se han configurado tres grandes ámbitos a nivel institucional: Organización, Territorio y Ciudadanía, agrupando en tres grandes ámbitos de coordinación y planificación las diferentes áreas/subáreas municipales recogidas en el organigrama vigente. Dicha resolución se publicó en el BOG de 12 de enero de 2017 y se dio cuenta de la misma en sesión plenaria de 31 de enero de 2017.

Erakundearen beraren zein oro har herritarren onerako izango delakoan, Udalak lehenbiziko urratsak eman behar ditu egitura politikoa errazteko eta batzorde informatiboen kopurua gutxitzeko; halaber, batzordeei izena eta definizioa aldatu behar zaie, hiru arlo berrietara egokitzeko. Batzorde berri bakoitzean emango da dena delako arloaren aurreko hilabeteko kudeaketa-txostenaren eta hurrengo hilabeteko jarduera programatuen berri, batzordeen izaera informatiboa indartzeko eta, aldi berean, Udalaren kudeaketa gardentasunez erakusteko, hala oposizioari nola herritarrei. Udalaren hiru arlotako antolaketa eta hiru batzorde berrien sorrera laster irudikatu nahi da Udalaren aurrekontuaren egituran ere.

Desde el convencimiento de la utilidad tanto para la propia institución como para la ciudadanía en general, se han de iniciar los pasos que nos lleven a simplificar la estructura política dirigida a una reducción del número de comisiones informativas y una redenominación y redefinición de las mismas en concordancia con los tres ámbitos configurados. En cada una de dichas nuevas comisiones se dará cuenta del informe de gestión ordinaria del respectivo ámbito correspondiente al mes anterior y de las actividades programadas para el mes siguiente, en un ejercicio de reforzar la vertiente informativa inherente a las comisiones y que a su vez redunda en la transparencia de la gestión municipal tanto de cara a la oposición como a la ciudadanía. Dicha configuración en tres ámbitos con sus correspondientes tres comisiones informativas se quiere plasmar en un futuro cercano también en la estructura del presupuesto municipal.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Informazio-batzordeak eratzerakoan, ahal den heinean, bat etorri beharko lukete sail nagusien kopuruak eta izenek.

En lo posible, a la hora de constituir las Comisiones Informativas se ha de producir una correspondencia con el número y denominación de las grandes áreas en que se estructuran los servicios corporativos.

Aipatu bezala egitura sinplifikatzearren, indarrean dagoen legeriaren eta Udal Araudi Organikoaren arabera (72. artikulua eta hurrengoak), berriz ere udal honek izaera iraunkorrez izango dituen informazio-batzordeak sortu eta horien osaketa erabaki behar du, legegintzaldi hasieran bezala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1. c artikuluak Udalbatza osatzen duten udal-taldeei ematen dien eskubidea bete eta gauzatzearren.

Al objeto de proceder a la simplificación expuesta, de acuerdo con la legislación vigente y con el Reglamento Orgánico Municipal arts. 72 y siguientes, resulta necesario proceder nuevamente a la creación y determinación de la composición de las Comisiones Informativas de carácter permanente de este Ayuntamiento, tal y como se realizó al comienzo de la presente legislatura, para dar cumplimiento y hacer efectivo el derecho que el artículo 20.1.c) de la ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local otorga a todos los Grupos Municipales integrantes de la Corporación.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onarturiko Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduaren 124. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, udalbatza bakoitzari dagokio informazio-batzorde kopurua eta horien izenak erabakitzea, izan Udaleko eskumen-eremuko egitura dela-eta eratuak edo gai zehatzak ikusteko xedez denboraldi baterako eratuak, baita bilerak egiteko aldizkakotasuna ere. Edonola ere, alkateak edo batzordeburuak eskumena izango du bilerak egiteko eguna eta ordua jartzeko.

Considerando que de conformidad con lo dispuesto por los artículos 124 y siguientes del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, corresponde al Pleno de cada Corporación determinar el número y la denominación de estas Comisiones Informativas de estudio y dictamen, tanto cuando nacen con vocación de permanencia por obedecer a la estructura del ámbito competencial del Ayuntamiento, como cuando nacen con carácter temporal con el objeto de tratar de temas específicos, así como la periodicidad de sesiones a celebrar, ello sin perjuicio de la facultad del Alcalde o respectivo Presidente de establecer los días y hora en que tengan lugar aquellas.

Batzorde hauek Udalbatza osatzen duten alderdi politikoek -Udalean duten ordezkaritzaren arabera-

Considerando que estas Comisiones han de estar integradas por los miembros que designen los



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Izendatzen dituzten partaideek osatuko dituzte.

diferentes Grupos Políticos que forman parte de la Corporación, en proporción a su representatividad en este Ayuntamiento.

Idazkari Orokorrak gaiaren inguruko txosten juridikoa eman du 2017ko apirilaren 3an.

La Secretaria General ha emitido informe jurídico al respecto con fecha 3 de abril de 2017.

Lehendakaritza batzordeak aldeko txostena egin zuen 2017ko apirilaren 7an.

En fecha 7 de abril de 2017 la Comisión Informativa de Presidencia informa favorablemente el presente asunto.

Lehendakaritza batzordeko buruak proposamena egin du.

Vista la propuesta de la Delegada de Presidencia.

Ondorengo mintzaldiak izan dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Peña andreak parte hartu du (EAJ/PNV), eta Batzordean egin bezala alde bozkatuko dutela adierazi du. Funtzionamenduan antolaketa aldaketa eragin zuten oinarriekin bat datoz. Prozesu osoan zehar hurbiltasun gutxiago izan dutela-eta, oposizioaren Taldeentzat garrantzizko aldaketa izango da. Eta dagokion Batzordean adierazi bezala, aktan jasota gera dadin Gobernu Taldeari eskatu dio guztiek denbora har dezatela aldaketaren funtzionamendua ebaluatzeko, batez ere denbora tarteen gaien gainean dokumentazioak eta gainerakoak entregatzeko. Guztia oinarrituko badute bere gain hartu eta bere egin beharko dituzten txostenetan entregatuko diren unetik, uste du aurreikusi diren datak nahikoak izango direla. Dena den, horren ostean txostenen edukia aztertu beharko da, zer diren, etab. Beste horrenbeste batzordeen iraupen denborari dagokionez, izan ere, ez du ezagutzen txostenetan zein neurritan argituko den batzordeetan eztabaidatzen dena, Batzordean

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que como hicieron en la Comisión, votarán a favor de este punto. Comparten los principios que inspiran el cambio organizativo en el funcionamiento. Debido a la menor cercanía que han tenido en todo el proceso, para los Grupos de la oposición va a ser un cambio importante. Y como ya manifestó en la Comisión correspondiente, para que quede reflejado en el acta solicita al Equipo de Gobierno que todos se den un tiempo para evaluar el funcionamiento del cambio en aras de una posible flexibilización sobre todo en las cuestiones de los tiempos para entregar las documentaciones y demás. Si van a basar todo en relación a unos informes que van a tener que asumir y asimilar desde el momento de su entrega, cree que las fechas que se han previsto serán suficientes, pero habrá que ver luego el contenido de los informes, qué son , etc. Lo mismo, en cuanto al tiempo de duración de las comisiones, no sabe cuanto de lo que se discute en las comisiones se



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

